

Urrezko Xistera ♦ Bereikua eta Castro 35-26 nagusitu zitzaizkien Egiguren eta Elizegiri

Ikuskizuna aurrean, Urrezko Xistera atzean

Castroen segurtasunak eta Elizegiren hutesk erabaki zuten lehia

Andoni Urbistondo / Donostia

BEREIKUA eta, Castrok irabazi zuten atzo Urrezko X. Xistera, Bilboko Deportibon jokatuak lehian Egiguren II. eta Elizegiri 35-26 nagusitu ostean. Partidu dotorea jokatu zuten bi bikoteek, eta pilotalekua bildutako zaleei ikuskizun bikaina eskaini, batik bat aurrealdeko kuadroetan. Partiduko gakoak, ostera, Castrok atzealdean erakutsitako sendotasuna izan zen. Pilota pare bat bakarrik galdu zituen, baina Elizegi aurkakoak 19.

Urduritasun hándiarckin hasi ziren jokatzeko bi bikoteak. Huts gehiegi eginez, bospasei pilotakada eman ostean. Huts horiengatik parekatuta izan zen finala, zazpi aukeratan berdindu baitzuten lehian tantoetan. 9-7 izan zen urdinek Egiguren-Elizegi- edukitako lehian alde nabarmena.

Egiguren bereak eta bi egiten hasi zen, Bereikua, errotuz kasik. Egiguren hiru zapa~ lau tanto egin zia Aion jarraian Bereikuari. Donostiarrak, gainera, Berriatukoak eginiko dejada zital pare bat harrapatu eta tanto bihurtu zituen. 13-7, 16-8 eta 18-12 aurreratu ziren Egiguren 11. eta Elizegi, baina galtzaileek buelta eman zituzten lehian.

Urkia-Garrido, Urrezko Palako lehian finala

URKIA-GARRIDO bikotea da Urrezko Palako finala jokatuko sailkatu diren lehian pilotariak. Atzo, Xisterako finalaren atarian jokatuak finalerdian 45-43 gailendu ziren Unda I. eta Juan Pablaren aurka. Emaitzak adierazten duen moduan, norgehiagoka arrunt parekatua izan zen. Bi edo hiru tantotako aldeak lortu zituzten gehienek bi bikoteek, baina alde horiek, ia beti, Urkia-Garrido garaileek eduki zituzten. Gaur arratsaldean jokatuko da bigarren finalerdia, Sanchez-Torre eta Insausti-Beldarrain bikoteen artean.



MIKEL MARTINEZ

Lehia ikusgarria izan zuten aurreko kuadroetan Bereikuak eta Egiguren II.ak

Castro pilotakada bortitz eta baztertueta asmatzen hasi zen, eta Bereikua konfiantza hartzen. Bereikuak dejada bikaina egin~zuen seigarren kuadroetik, 14-18koa lortzeko. Hogeigarren tantoa egin zuten Egiguren eta Elizegik, baina Bereikua eta Castrok,

9-0 partzialarekin, 25-20 aurreratu ziren. Elizegiri itxuraz, zailtasun handiegia ez zuten laupabost pilotak egin zituzten ihes xisteratik.

Finala irekia zegoen, baina Castrok sendo eutsi zion, eta Elizegik ez. Egiguren Bereikuaren erasoak itzultzeko

jardunean zebilen, ikuskizuna Berriatukoak jarri baitzuten amaieran. 27-23, 31-23 eta 33-24 aurreratu ondoren, 35-26 gailendu ziren Bereikua eta Castro. Egiguren 12 tanto egin zituzten aurrean, baina Elizegi 19 galdu atzean.

Ezkurra Erregetako Torneo finalera

ATZO ARRATSALDEAN jokatu ziren Galarretako frontoian erremonteko Erregetako Torneo buruz buruko eta binakako bigarren finalerdia. Buruz buruko partiduan, Ezkurak 35-26 gailendu zuen Zeberio II.a, eta, beraz, larunbat honetako finalean izango da. Lizaso izango du aurkari orduan. Binakako bigarren finalerdia dagokionez, Urretabizkaia I. a eta Aipuru nagusi, 40-36, Altuna II.a eta Anjel Lekunberriren kontra. Irabazleek ere larunbatean jokatu dute finala, Elizalde eta Iriarteren kontra, hain zuzen ere.

Bigarren mailako finala osatzeke

ORAINDIK ez da osatu Euskadiko Bigarren Mailako Binakako Txapelketako finala, atzo finalerdietako itzuliko partidua batean ez zuelako irabazi aurrenekoan irabazi zuenak. Hain zuzen, Minguez eta Rai, lehian partiduan garaile izan ostean, atzo galtzaile izan ziren Najeran Barberito VI.a eta Zezarraren kontra: 12-22. Beste finalerdian, aldiz, Kokak eta Barriolak osatutako bikoteak irabazi egin zuten berriro Leitza jokatutako norgehiagokan. 22-17 hartu zituzten mendean Errandonea II.a eta Pascual. Finalean da, beraz, Koka-Bariola.

laburrean

ESKUBALOI

■ Roman Abramenko ezker lateral errusiarrak fitxatu du Barakaldok

ROMAN ABRAMENKO errusiarrak fitxatu du Barakaldok, hutsunerik handiena zuen postuetako bat betetzeko: ezker lateralak. 24 urteko errusiar honek Oporton jokatzeko denboraldi hasieratik. Abramenkorekin lehian hartu-eman larunbatean izan zuen Txanpi Riverok, eta astelehenean proba bat egin zioten Gorostizari. «Egun bat ez da aski jokalaririk baten maila ikusteko», baina prestatzailearen arabera «taktikoki jokalaririk ona da, eta ez du denbora asko behar egokitzeko». X

TXIRRINDULARITZA

■ Polti taldeak Richard Virenque fitxatzeko interesa agertu du

RICHARD VIRENQUE Polti taldeko buru Franco Poltiren bildu zen herenegun, haren fitxaketaren baldintzei buruz hitz egiteko. Txirrindularia eta Polti hiru orduz egon ziren bilduta, eta La Gazzetta dello Sport aldizkariaren arabera, «pentsatzea» erabaki zuten. Kirol aldizkariaren arabera, Virenquek handitu egin ditu bere gurari ekonomikoak.

HARRI-JASOTZEA

■ Izeta II.ak gaur erantzun dio Ostolaza II.ak jokatuko erronkari

OSTOLAZA II.ak erronkari dio Izeta II.ari 150 kilogramo zaharrenekin edo 162 kilogramo edozein harrarekin, nork jasoaldi gehiago egin hamar minutuko hiru txandatan. Izeta II.aren erantzunaren zain, Azeitiko Mendizabal jate-txean egongo da gaur Ostolaza, iluntzeko 20:00etatik aurrera.

SASKIBALOI

■ NBAko lokalariak eta labeak adostasuna lortu dute, irratik baten arabera

PHOENIX-KO (Arizona, EEBB) irratik batek NBAko jokalarien sindikatua eta taldeetako akordioa lortu zutela plazaratu zuen atzo. KGME irratik Phoenix Suns taldeko ardura-dun bat aipatu zuen iturri moduan. Berriak ez du baieztapen ofizialik.